



PRENTSA-OHARRA

Bihar, asteartearekin, Donibane, Mendebaldea eta Ermitagañako auzo-eztabaidagunea bilduko da José María Huarte Ikastetxe Publikoan

Topaketa 18:30ean hasiko da, Esther Cremaes zinegotzia bertan izango da, eta hala hiriko auzo-eztabaidaguneen beste txanda bati emango zaio hasiera

Bihar, asteartearekin, Iruñeko Udalak antolatutako auzo-eztabaidaguneen beste txanda bat hasiko da. Gune horiek elkartu eta hitz egiteko dira, herritarrek proposamenak egin ditzaten, eta auzoari buruzko informazioa jaso dezaten. Lehenengo bilera José María Huarte IPan izango da, eta Donibane, Mendebaldea eta Ermitagañako herritarrak, elkarteak eta gizarte-ehuna daude gonbidatuta. Topaketa irekia da, edonork parte hartu dezake, 18:30ean hasiko da, eta Esther Cremaes zinegotzia bertan izango da.

Saioaren hasieran auzoko zinegotziak hartuko du hitza, eta auzoari buruzko udal-argibide, inbertsio, proiektu, plan eta abarren berri emango du. Jarraian, lan-dinamika bat egitea aurreikusita dago, non bertaratutakoak bi taldetan banatuko baitira: batetik, Donibaneko biztanleak; eta bestetik, Mendebaldea eta Ermitagañakoak. Horrela, zonalde bakoitzaren errealitate eta beharretan sakontzea bilatzen da, talde bakoitzaren eskaera ezberdinak modu argiago batean ezagutzeko. Auzo bakoitzaren inguruan auzotarrek proposatutako intereseko gaiak izango dira parte hartzeko dinamika honen ardatz.

Hori da auzo-eztabaidaguneen txanda berri honen berritasun nagusietako bat. Zinegotzi ordezkari bakoitzak bilera gauzatzeko bi formatu izango ditu aukeran. Topaketa orain arte bezala egin ahal izango da, lehenengo zinegotziak eta ondoren herritarrek hitza hartuta, iradokizunak zein proposamenak egiteko; edo, horrez gain, beste deliberazio-gune bat sortuta lantaldeetan, auzoan garrantzitsua den gai nahiz alderdiren bat jorratzeko edo auzo osoaren egoerari buruz hitz egiteko.

Biharkoa ekainera bitarte egingo diren hamahiru auzo-eztabaidaguneetako lehenengoa izango da. Guztiak astearteetan izango dira, 18:30ean, eta lokal publikoetan: Civivox, ikastetxe zein liburutegietan. Martxoan zehar eta Aste Santuko etenaldira arte, honako auzo-eztabaidagune hauek programatu dira: Iturramako auzo-eztabaidagunea (martxoaren 13an, asteartearekin,

1. orrialdea, (e)tik 2





Iturramako Civivoxean), Txantreakoa (martxoaren 20an, asteartearekin, liburutegi publikoan), eta Alde Zaharrekoa (martxoaren 27an, asteartearekin, Kondestable Civivoxean). Guztiak herritarren parte hartzera irekita daude, nahi duen orok iritzia, iradokizunak eta proposamenak egin ditzan hiriko auzo bakoitzerako.

AUZO-EZTABAIDAGUNEEN EGUTEGIA

	AUZO	TOKIA	ORDUA	ZINEGOTZIA
03/06	Donibane - Ermitagaña - Mendebaldea	José M ^a Huarte IP	18:30	Esther Cremaes
03/13	Iturrama	Iturramako Civivoxa	18:30	Iñaki Cabasés
03/20	Txantrea	Txantreako liburutegia	18:30	Joxe Abaurrea
03/27	Alde Zaharra	Kondestable Civivoxa	18:30	Manuel Millera
04/10	Arrotxapea	Juslarrocha Civivoxa	18:30	Patricia Perales
04/17	Erripagaña / Beloso / Bidezar	Elorri IP	18:30	Maidier Beloki
04/24	Arrosadia - Milagrosa - Azpilagaña	Milagrosako Civivoxa	18:30	Eduardo Eguino
05/08	Lezkairu / Santa María la Real	Milagrosako Civivoxa	18:30	Javier Leoz
05/15	Sanduzelai	Sanduzelaiko Civivoxa	18:30	Aritz Romeo
05/22	Zabalguneak	Vázquez de Mella IP	18:30	Itziar Gómez
05/29	Mendillorri	Mendillorriko Civivoxa	18:30	Laura Berro
06/05	Etxabakoitz	Nicasio Landa IP	18:30	Armando Cuenca
06/12	Buztintxuri	Buztintxuri IP	18:30	Mikel Armendáriz

Iruñean, 2018ko martxoaren 5ean

